



## **DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, MUSIKA ESKOLA BEREZIKO IRAKASLE LANPOSTUAN, TRONPA ESPEZIALITATEAN, ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEKO JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA.**

Iruñeko Udalak, Giza Baliabideetako zuzendaritzak 2024ko urriaren 4an emandako Ebazpenaren bidez, honako deialdi hau onetsi du:

### OINARRIAK

#### **Lehena. Deialdiaren xedea.**

Deialdia iragartzen da, izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko, Musika Eskola Bereziko irakasle lanpostuan, tronpa-espezialitatean aritze aldera, Iruñeko Udaleko Joaquín Maya Musika Eskola Berezian gertatzen ahal diren beharrak aldi baterako asetzeari begira.

#### **Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.**

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa.

Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu batekoa edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere parte hartzen ahalko dute, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenek –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Jarraian aipatzen diren apartatuetako titulu-tako bat edukitzea, aukeran, edo hura erdiesteko maneran egotea, eskabideak aurkezteko epea amaitzean.

1. Unibertsitate-diplomatura edo -gradua, Ingeniaritza Teknikoko, Arkitekto Teknikoko edo horien baliokidea den titulua eta Erdi Mailako titulu profesionala tronpa espezialitatean.

2. Goi Mailako titulua tronpa espezialitatean edo, bestela, espezialitate horren Erdi Mailako Irakaslearen titulua, Musika Kontserbatorioen Araudi Orokorrari buruzko irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuarekin bat emana.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea, bete behar dituzten eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ere.



g) Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearekin bat, adingabeekin ohiko harremana edukitzea eskatzen duten lanpostuetara sartzeko ezinbestekoa da epai irmo baten bidez kondenarik jaso ez izana sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik edo gizakien salerosketagatik.

2.2. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauen 2.1 c) apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

### **Hirugarrena. Eskabideak.**

#### 3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdi honen testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

#### 3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea telematikoki aurkeztu beharko dute, Internet bidez, [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

#### 3.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzeagatik ordaindu beharreko tasa 11,20 eurokoa da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskabidea formalizatzeako unean, telematikoki ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

#### 3.4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidea online aurkezteko unean, izangaiek, kasuaren arabera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, deialdiaren 2.1. a) oinarrian eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.

- 2.1.c. oinarrian aipatutako titulazioen fotokopia.

- Desgaitasun bat aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.



3.5. Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta baliorik gabe geldituko dira ordura arte haien gauzatutako egintza guztiak, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunberrara ezertan galarazi gabe.

3.6. Aski izanen da dokumentazioaren kopia arruntak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak exijituko dira.

### **Laugarrena. Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean argitaratuko da.

4.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, eskabideak aurkezteko 3.2. oinarrian aipatutako izapide elektronikoko beraren bidez.

4.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako lehen hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Baztertutako izangairik ez badago, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da eta Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da, lehen hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

4.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko, baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

4.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

### **Bosgarrena. Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.**

5.1. Probak. Hautapen-prozesuak proba bat izanen du, bi ariketakoa:

- Lehen ariketa: interpretazioa. Obra bat edo gehiago, edo haien mugimenduak, jo beharko dituzte, 10 bat minutuz. Epaimahaiak proba amaitutzat eman dezake egoki iruditzen zaionean.

Interpretatutako errepertorioak akonpainamendua behar izanez gero, errepertorista edo beste laguntzailerik ez egotea negatiboki baloratzen ahalko da.

Partituren bi kopia emanen zaizkio epaimahaiari.

Proba horretan gehienez ere 15 puntuko balorazioa emanen da. Bazterturik geldituko dira gutxienez 7,5 puntu lortzen ez dituzten izangaiek.



Aniztasuna balioetsiko da, baita interes artistikoa eta aurkeztutako programan zenbait trebetasun eta/edo estilo menderatzen direla erakusteko aukeratutako erreperorioa ere, eta honako alderdi hauek: egituraren gaineko kontzientzia musikala, testuaren doitasuna, erritmo-sentimendua, agogikak, dinamikak, fraseatzea, soinu-planoak, soinuaren oreka egokitzea pasarte bakoitzean, soinuaren kalitatea erregistro eta dinamiketan, interpretazio estilistikoa, instrumentuaren kontrola, pedalak egoki erabiltzea, komunikazioa, adierazkortasuna, sentikortasuna, soinu-irudimena, kontrol psikologikoa, presentzia eszenikoa, memoria, eta epaimahaiak egoki jotzen dituen beste zenbait alderdi.

- Bigarren ariketa: Irakaskuntza. Izangaiak gehienez ere 15 minutuko eskola-saio bat emanen diote Musika Eskolan ikasten ari den edozein mailatako ikasle bati. Epaimahaiak proba amaitutzat eman dezake egoki iruditzen zaionean.

Ariketa honetan gehienez ere 35 puntuko balorazioa emanen da, eta bazterturik geldituko dira gutxienez 17,5 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: ikasleekiko komunikazioa eta harremana; ikasleen arazoak hauteman eta konpontzeko gaitasuna; hainbat baliabide eta estrategia erabiltzea edukiak barneratzea lortzeko eta alderdi tekniko eta musikalak hobetzeko; egokitasuna, koherentzia, sekuentziazioa eta epaimahaiak egoki iritzitako beste zenbait alderdi.

Epaimahaiak egoki jotzen duen argibide oro eskatzen ahalko du.

Epaimahaiak adosten ahalko du bi ariketak egun berean edo desberdinetan egitea.

Bi ariketak grabatuko dira, hala irudian nola soinuan, eta Iruñeko Udalak gorde egingen ditu grabazio horiek, datu horien tratamendua dela eta Udalari erantzukizunik etortzen ahal zaion bitartean. Informazio hori legezko interesdunei jakinarazten ahalko zaie.

5.2. Probetarako deialdi bakarra egingen da, eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIza, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela azalduko dira haietara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

5.3. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoan aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

5.4. Proba egin ondoren, Udalaren webgunean argitaratuko dira izangai bakoitzak lortutako emaitzak.

Probaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

### **Seigarrena. Kalifikazio-epaimahaia.**

6.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.

Epaimahaiburu ordezkoa: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.

Epaimahaikidea: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.



Epaimahaikide ordezkoa: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.

Epaimahaikidea: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.

Epaimahaikide ordezkoa: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.

Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko irakasle bat.

6.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoez, kontuan harturik ordezkotzat izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezkotzat gisara izendatutakoak, bigarren ordezkotzat egitea beharrezkoa izanez gero.

6.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arazoak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

### **Zazpigarrena.- Gainditu dutenen zerrenda.**

7.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak argitara emanen ditu Iruñeko Udalaren webgunean, deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

7.2. Izangaien artean gerta litezkeen berdinketak hautapen-prozesuaren bigarren partean – irakaskuntza-proban– lortutako puntuaziorik altuenaren arabera ebatziko dira. Eta berdinketak bere horretan jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da Zerbitzu Orokorretako Alorrean –Giza Baliabideetan–, eta berdinduta dauden izangaiei deituko zaie zozketan egon daitezen.

7.3. Izangai-zerrendak izangaiak deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat eginen zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.



### **Zortzigarrena. Izangaien zerrendak eta dei egitea.**

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaiak deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean argitaratuko dira.

Arau honek aipatzen duen zerrendako izangaiei deitzea, honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

Momentu horretan aurkeztu beharko dituzte deialdi honetan eskatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotutak.

Era berean, momentu horretan aurkeztu beharko da abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak araututako Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa.

### **Bederatzigarrena. Errekurtsoak.**

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahalko da, deialdia egin duen udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta oinarri horiek aplikatzeko egintzen aurka –egintzok epaimahaia sorburu ez dutenean–, errekurtsu hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsuak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2024ko urriaren 4an. Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.